

PLE 17-MAR-23 (3/CP)

**KREDITU-SORRERA IRUÑEKO UDALAREN 2023KO
AURREKONTU LUZATUAN, EUROPAKO DIRULAGUNTZEN
BIDEZ FINANTZATUA, AUNA PROIEKTURAKO**

PLE 17-MAR-23 (3/CP)

«IKUSIRIK Iruñeko Udalaren 2023ko aurrekontu luzatuaren aldaketari buruzko espedientean jasota dauden agiriak (Alkatetzak 2022-12-30eko ebazpenaren bidez onetsi zuen aldaketa hori, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren arloan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuak ezarritakoarekin bat dirulaguntzen bidez finantzaturako proiektuen gastuetarako beharrezkoa baitzen) eta indarreko aurrekontua betetzeko oinarriekin bat, HAU ERABAKITZEN DA:

1.- Kreditu-sorrera onestea 70/24131/131010 partidan (Orientazio eta laguntza soziolaborala. Aldi baterako langileendako oinarritzko lansariak), 316.018,55 euroko zenbatekoarekin, AUNA. Inklusiorako Ibilbide Integratuak proiekturako, Europar Batasunaren dirulaguntzen bidez finantzatua (diru-sarreraren 20/79700 partida).

2.- Aldaketa horri aplikatzen ahalko zaio indarreko aurrekontua betetzeko oinarrietako 10.aren 8. apartatua, aurrekontu-aplikazio berriak sortuz gero gastuaren behin betiko egozpenean.»